



## KARAOKE LEHIAKETA

- 2019 -

1. Karaoke lehiaketa urriaren 13ean 17:30etan Japoniar Areto Nagusia izeneko gunean ospatuko da, Zelaieta Zentroko frontoian.
2. Gehienez 20 partaide egongo dira. Partehartzaileak bakarka edo taldeka abestu ahal dute. Taldeak gutxienez 2 pertsonen eta gehienez 6 pertsonen osatuta egon behar dira.
3. Antzezpeneren iraupena gehienez 2 minututakoa izango da. Nahi izanez gero partehartzaileek antolakuntzarekin abestiaren mozketaren momentua adostu ahal izango dute.
4. Abestien gaia librea da baina ondo baloratuko dira hurrengo gaiak: animea, animazio filmak, J-Popa eta bideojokoak.
5. Abestien bertsoak edozein hizkuntzetan egon daitezke, japonieran abestea ongi baloratu delarik.
6. Izen-ematea Zelaieta Zentroko sarreran dagoen Informazio puntuan zuzenean egingo da ostiraleko (urriak 11) 17:00etik aurrera igandeko (urriak 13) 14:00ak arte.
7. Hurrengo datuak eman beharko dira
  - Abestiaren izena eta bere jatorria (animea, bideojokoa, etab.)
  - Izen-abizenak
  - Nick-a (hautazkoa)
  - Taldearen izena (hautazkoa taldeen kasuetan)
  - Telefonoa (larrialdiren bat egotekotan deitzeko)
8. Audio eta bideo fitxategiak izena ematean entregatuko dira eta VLC softwareko azken bertsoarekin funtzionatu beharko dute. Pendrive batean ekartzea gomendatzen da, jarraian itzuliko dena. Ez bada entregatzen lehiaketan ezingo da parte hartu.
9. Partaideak 17:00-etan Backstagean egon beharko dira euren partehartzea baieztatzeko. Sarrera hurrengo argazkian ikusi daiteke:



10. Partaideak eszenatokira antolakuntzak adierazitako lekuetatik sartu/irten beharko dira.
11. Epaimahaiak abestiaren zailtasun maila, aurkezpena, jarera, publikoarekiko konexioa eta afinazioa baloratuko du.

Bestalde, abestien hizkuntza eta bertsio instrumentala edo karaokea (hau da abeslariaren ahotsa ez duena) erabiltzea aintzat hartuko du. Horrez gain, letra buruz abestea, letra paperean eraman barik, baloratuko da ere.

12. Epaimahaiak irabazleak aukeratuko ditu hurrengo kategorien arabera:

**Karaoke 1. Saria:** 100€ + Domina/k

**Karaoke 2. Saria:** 50€ + Domina/k

Epaimahaiak eskubidea izango du, hala erabakiz gero, saririk ez banatzeko edo Aipamen berezia sortzeko.

**Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.**

13. Ezin da eszenatokitik publikoarengana salto egin eta ez da onartuko jarrera desegoki edota lizunik, honen aurrean antolakuntza horri dagozkion neurriak hartzeko eskubidea gordetzen du.
14. Debekatuta dago bannerrak edo publizitatearen erabilpena antzezpenaren zehar antolakuntzaren baimenik gabe.
15. Publizitaterako helburuarekin partehartzaileen irudiak komunikabide desberdinetan (Telebista programak, Internet, egunkariak, aldizkariak, etab.) erabili ahal izango dira. Ez da sari ekonomikorik egongo honegatik.
16. Lehiaketan izena ematean antolatzaileei erraztutako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira 15/1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoaren arabera. Lehiaketa hau burutzeko baino ez dira erabiliko eta ez zaie hirugarrenei utziko ezta salduko ere.
17. Antolakuntzak eta epaimahaiak oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakasta hobe bateri lagun dezaketen edozein ekimen hartzeko eskubidea gordetzen du.
18. Lehiaketan parte hartzeak honako oinarrien onarpena suposatzen du.

## KONTAKTUA:

Zalantzak izatekotan email bat bidali dezakezu [mangamore@mangamore.eus](mailto:mangamore@mangamore.eus) helbidera

